

Denendako Lizarraldea nahi dugulako jaio gara!

Ekonomia sozial eta eraldatzailearen inguruan lan eta bizi garen proiektuok osatzen dugu Denendako. Hamaika koloretako sarea ehundu dugu elkarlanean, hamaika izaeraduna, beste horrenbeste herritako bizilagunek jositako, eta guztiok dugu komunean amets bat: Lizarraldean lan eta bizi nahi dugu. Gure txikitasunetik eraginez eskualde berria eraiki nahi dugu. Inguratzen gaituen lurreekiko errespetuz eta haren erritmora bizituz. Gure arbasoen sustraiei loturik, herri hustuak bizitzaz betetzeko. Anitzak izan nahi dugu, eta harremanak eredu justu baten baitan eraiki nahi ditugu. Denok zaugarri garela aitortuz eta ondorioz bizitza sustengatzeko zaintzak kolektibizatuz. Zainduz eta zainduak izanez. Eman-Jaso-Itzuliz. Auzolanez. Maitasunez.

Zergatik, bada, Denendako? Atzera begiratu besterik ez dago. Eredu kapitalistaren eta patriarkalaren itzalean (eta gutxi batzuen intereserako), hamarkada luzetako politika neoliberalen ondorioak pairatu ditu Lizarraldeak ere. Hala, emeki-emeki, gure eskualdeko herriak husten ari dira, hirien mesedetan: zerbitzuak galdu dituzte, biztanleriak behera egin du, harremanak urrundu dira, eta bertako usadioak eta hizkuntza ahanzturan iltzatu dira, besteak beste.

Neoliberalismoak, gainera, beste buelta bat eman dio torlojuari, eta ekonomiaren deslokalizazioaren eta globalizazioaren morroi bilakatu gaitu. Ondorioz merkataritza txiki zein gremioak mehatxupean daude multinazionalen jarritako erraztasunen ondorioz, baino eredu injustua izateaz gain, eredu ez-jausgarri baten aurrean gaude, eta dagoeneko ohartzen hasiak gara Lizarraldeko lur emankorrak lehortzen ari zaizkigula, sute eta uholdeei zaugarri. Duela ez hainbeste milaka familiei bizibide eta elikagaia ematen zieten lurrak agortzen ari zaizkigula. Egoera horren aurrean, Lizarraldeko gazte askok atzean utzi behar izan dute gure eskualdea, etorkizun oparago bat eraikitzeko; gehienetan, gainera, hirigune handietara migratzen dute herriekin duten lotura ahulduz. Hori guztia gutxi balitz, sinestarazi digute gure proiektuak Lizarraldean eraikitzea amets utopikoak baino ez direla.

Ataka honetan gaudela, bestelako eskualde bat eraiki nahi dugu; non feminismoaren proposamenen erraietatik bizitza bizigarriak posible egingo dituen lurraldea erditu nahi dugun. Horretarako, ekonomian eragiten hasi nahi dugu, izan ere, ez dugu ahaztu behar ekonomia herritarron beharrak asetzeko baliabidea dela, baita zerbitzuak antolatzeke sistema ere. Horregatik, ekonomia bizitzaren mesedetan antolatzen hasi nahi dugu. Kapital metaketatik harago, herritarren beharrak erdigunean jarriko dituen sistema sozioekonomikoa elkarrekin eraiki nahi dugu: feminismoaren balioak proiektu bakoitzaren ekonomian txertatuz; ekonomia berdea indartuz; pertsonak erdigunean jarri, lan duinak bermatuz; elkarrekin jardunez, interkooperazioan, batak besteari behar duen babesa eta indarra emanez; elkarzainduz. Horretarako, ezaugarri hauen baitan josi nahi dugu gure ehun sozioekonomikoa:

-Elkarrekikotasuna - zaintza: Hierarkia, ezberdintasun eta zapalkuntza anitzak eragiten dituen sistemaren aurrean, ekonomia sozial eta eraldatzaileak eredu berrietarantz jotzeko trantsizioa proposatzen du. Elkarrekikotasuna eta zaintza oinarria izango dira pertsonen, komunitateen eta herrien arteko harremanetan. Baita planetarekiko harremanetan ere. Aniztasuna positiboki aitortu eta txertatuko duten **harreman horizontalak eraiki** nahi ditugu.

-Lan duina: Lana, bizitza sustengatu eta aberastasuna sortzen duten jarduera guztiak dira. Era honetan, ekonomia sozial eta eraldatzaileak, kapitalismoak ez bezala, **"konpromiso soziala"** sartzen du oinarri bezala ekuazioan. Lana, talde ekintzarako tresna dela ulertzen dugu: jendarteak dituen beharrak asetzeko antolatua, baina baita pertsona bakoitzaren eta jendartearen ahalduzera, eta gaitasunak garatzera bideratua ere.

-Jasangarritasun ekologikoa: Eredu kapitalista eta patriarkalak amalurra luzez objektu bilakatu izan badu ere, ekonomia sozial eta eraldatzaileak eskubidedun subjektu gisa aitortzen du; hura zaindu eta sostengatzea zentraltasunezko ardatz bilakatu. Jarduera oro natur **ingurumenarekiko errespetuz** gauzatzen dela sustatu nahi dugu.

-Aberastasunaren bidezko banaketa: Gure planetak behar duen trantsizio ekosoziala ahalbidetuko bada, kolokan jarri beharra dago egungo pentsamendu ekonomiko nagusia. Ekonomia sozial eta eraldatzaileak honela ulertzen du aberastasuna: komunitate batek bere kideen beharrei epe labur, ertain eta luzean erantzuteko duen gaitasuna eragiten duten elementu material, sozial, kultural eta natural guztiak dira. Horrela beharrezkoa zaigu aberastasuna integralki ulertu eta era bidezkoan sortu, banatu eta kontserbatzeko talde estrategia bat lantzea bizitza sustengatzeko.

-Ingurunearekiko konpromisoa: Tokikotasunean oinarritutako ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu justu eta jasangarria sustatzea da ekonomia sozial eta eraldatzailearen asmoa, honela, subjektu ekonomiko, sozial eta politiko solidarioa, feminista, antiarrazista eta dekoloniala eraikitzeko. Konpromiso honi eutsiko bazaio, kontzientzia hartu beharra dago jendartearen eta lurraldearen errealitateaz eta, horrez gain, komunitatearen kide izatearen sentimendua indartzeko beharraz.

Hamaika gara Lizarraldea luze eta zabalean eredu justuago batean sinesten dugun norbanako, kooperatiba, elkarte edota eragileak. Batu gure ametsei, biderkatu ditzagun indarrak eta ekin diezaiogun agenda kolektibo eraldatzailea bultzatzeari! Eraiki dezagun guztion artean Lizarraldea bizigarriago bat! Hauspotu ditzagun gure herrietako sugarrak! Izan dadila Lizarraldea Denendako!

¡Nacemos porque queremos que Tierra Estella sea para todas!

Denendako lo formamos distintos proyectos que trabajamos y vivimos en torno a la economía social y transformadora. Hemos tejido conjuntamente una red de infinidad de colores, de naturaleza diversa, cosida por vecinas de otros tantos pueblos, y todas tenemos en común un sueño: queremos trabajar y vivir en Tierra Estella. Desde nuestra pequeñez queremos construir una comarca renovada. Desde el respeto hacia la tierra que nos rodea y viviendo a su ritmo. Unidas a las raíces de nuestras antepasadas, para poder llenar de vida los pueblos vaciados durante años. Queremos ser diversas y construir las relaciones dentro de un modelo más justo. Reconociendo que todas somos vulnerables y colectivizando los cuidados para sustentar así la vida en consecuencia. Cuidando y siendo cuidadas. Dando-recibiendo-devolviendo. De manera colectiva. Desde el cariño.

¿Por qué Denendako? No hay más que echar la vista atrás. A la sombra del modelo capitalista y patriarcal (y en defensa de los intereses de unos pocos), Tierra Estella también ha sufrido las consecuencias de décadas de políticas neoliberales. Así, poco a poco, los pueblos de nuestra comarca se van vaciando en beneficio de las ciudades: han perdido sus servicios, su población ha disminuido, sus relaciones se han alejado, y sus tradiciones y su lengua se han anclado en el olvido, entre otras cosas.

El neoliberalismo, además, dando una nueva vuelta de tuerca, nos ha convertido en esclavas de la deslocalización y la globalización de la economía. En consecuencia, tanto las pequeñas comerciantes como los gremios están amenazados por las facilidades otorgadas a las multinacionales. Además de ser un modelo injusto, estamos ante un modelo insostenible y ya empezamos a ser conscientes de que las tierras fértiles de Tierra Estella se están secando, vulnerables a incendios e inundaciones. Hace no tanto que se nos están agotando las tierras que servían de medio de vida y alimento a miles de familias. Ante esta situación, muchas jóvenes de Lizarralde han tenido que dejar atrás nuestra comarca para construir un futuro más próspero; en la mayoría de los casos, además, migran a los grandes núcleos urbanos y debilitan su conexión con los pueblos. Por si todo esto fuera poco, nos han hecho creer que el hecho de construir o emprender nuestros proyectos en Tierra Estella no es más que un sueño utópico.

Desde este atolladero queremos construir una comarca diferente, en la que desde las entrañas de las propuestas del feminismo podamos dar a luz un territorio que haga posible una vida digna para todas en Tierra Estella. Para ello queremos empezar a incidir en la economía, ya que no debemos olvidar que se trata de un recurso para satisfacer las necesidades de la ciudadanía, lo mismo sucede con el sistema de organización de los servicios. Por eso queremos empezar a organizar la economía en beneficio de la vida. Más allá de la acumulación de capital, queremos construir conjuntamente un sistema socioeconómico que ponga en el cen-

tro las necesidades de la gente: integrando los valores del feminismo en la economía de cada proyecto; fortaleciendo la economía verde; colocando a las personas en el centro, garantizando trabajos dignos; actuando conjuntamente, en la intercooperación, dando el apoyo y el fortalecimiento mutuo; cuidándonos mutuamente. Para ello, queremos tejer una red en el ámbito socioeconómico que reúna las siguientes características:

- **Reciprocidad - cuidados:** Frente a un sistema que provoca jerarquías, diferencias y opresiones múltiples, la economía social y transformadora propone una transición hacia nuevos modelos. La reciprocidad y el cuidado serán la base en las relaciones entre personas, comunidades y pueblos. También en sus relaciones con el planeta. Queremos construir **relaciones horizontales** que reconozcan e incorporen positivamente la diversidad.

- **Trabajo digno:** Son trabajo todas aquellas actividades que sustentan la vida y generan riqueza. De este modo, la economía social y transformadora, a diferencia del capitalismo, introduce el **compromiso social** como base de la ecuación. Entendemos el trabajo como una herramienta de acción colectiva, organizada para satisfacer las necesidades de la sociedad, pero también orientada al empoderamiento personal y social y al desarrollo de capacidades.

- **Sostenibilidad ecológica:** A pesar de que el modelo capitalista y patriarcal lo ha convertido en un objeto durante mucho tiempo, la economía social y transformadora reconoce a la naturaleza como un sujeto con derechos, siendo su cuidado y sustento ejes de centralidad. Queremos fomentar que toda actividad se desarrolle desde el **respeto al medio natural**.

- **Reparto equitativo de la riqueza:** Si se va a posibilitar la transición ecosocial que necesita nuestro planeta, hay que poner en jaque el pensamiento económico dominante actual. La economía social y transformadora entiende la riqueza como todos los elementos materiales, sociales, culturales y naturales creadas por una comunidad para responder a las necesidades de sus miembros, a corto, medio y largo plazo. Así, es necesario trabajar en una estrategia grupal de comprensión integral y de creación, distribución y conservación equitativa de la riqueza para el sostenimiento de la vida.

- **Compromiso con el entorno:** La economía social y transformadora pretende promover un modelo de producción, distribución y consumo basado en lo local, justo y sostenible, para construir un sujeto económico, social y político solidario, feminista, antirracista y decolonial. Mantener este compromiso implica tomar conciencia de la realidad social y territorial y de la necesidad de reforzar el sentimiento de pertenencia a la comunidad.

Somos muchas las personas, cooperativas, asociaciones y/o agentes que creemos en un modelo más justo en Tierra Estella; ¡Unamos nuestros sueños, multipliquemos nuestras fuerzas e impulsemos una agenda colectiva transformadora! ¡Construyamos entre todas una Tierra Estella más habitable! ¡Avivemos los corazones de nuestros pueblos! ¡Que sea Tierra Estella para todas!

